

ZER KONPONTZEN DUGU ETA ZERK BEREIZTEN GAITU?

Gure herrian, Durangon, plastikoaren birziklapena bultzatzeko planik ez dagoelako sortu dugu proiektu hau. Plastikoa ez birziklatzearen ondorioz, arazo larriak izaten ari gara gure ingurunean, adibidez, guk plastikoa birziklatu ez izateagaitik zabor guzti hura itsasoan pilatzea eta berrerabiltzeko aukerarik ez izatea. Proiektu honekin herritarrak plastikoa birziklatzeak duen garrantziari buruz jabetu nahi dugu modu erakargarri baten, gure kasuan teknologia berriak erabiliz, modu honetan biztanle gehiago erakarri eta gehiago gehiago birziklatzeko asmoa izango dute.

Beste aldetik, guk plastiko guztia pilatu ostean, plastikozko enpreseekin kontaktuan jartzea da gure helburua, haiei gure kalitatezko proiektua aurkezteko eta jabetu daitezen zer nolako onurak izango dituen plastiko guzti hori berrerabiltzeak.